**610/2021 EBAZPENA, APIRILAREN 22koa, ARABAKO ESIA-N BEHIN BETIKO EGOKITZAPENAK EGITEKO IRIZPIDE OROKORRAK EZARTZEN DITUENA**

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiak barne-mugikortasun bidez lanpostuak betetzeko irizpide orokorrak ezartzen ditu, eta mugikortasun-eskaintzaren aurreko urrats gisa egokitasuna aipatzen du, Lehen Mailako Arretako Taldeetako Fakultatibo Espezialista Familia Mediku eta Lehen Mailako Arretako Taldeetako Fakultatibo Espezialista Pediatriako Mediku kategoriak izan ezik.

**1.- Xedea:**

Dokumentu honek Arabako ESIko zerbitzu, zentro eta unitateen behin betiko egokitzapena arautuko duten irizpide orokorrak ezartzen ditu.

Oro har, egokitzapenerako eskainiko dira.
behin betiko mugikortasun-prozesu baten aurretik ARABAKO ESIko zerbitzu, unitate eta zentroetan hutsik geratzen diren lanpostuak.

Egokitzapenetik kanpo geratzen dira LMTko Fak. Esp. Familia Mediku eta LMTko Fak. Esp. Pediatriako Mediku lanpostu hutsak.

Barne-egokitzapeneko prozesuek, euskararen erabilera normalizatzeko plana betetzeko beharrezkoa den kasuetan izan ezik, ez dute plaza-kodea aldatuko, hau da, esleipen-hartzailea bere kodearekin sartuko da eskainitako postura. Egokitzapenak txanda/kokalekua aldatzea baino ez dakar.

**RESOLUCIÓN 610/2021, DE 22 DE ABRIL, QUE ESTABLECE LOS CRITERIOS GENERALES PARA LA ADECUACIONES DEFINITIVAS EN OSI ARABA**

El Acuerdo de 27 de noviembre de 2019, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, que fija los criterios generales para la provisión de puestos mediante movilidad interna, menciona la adecuación como paso previo a la oferta de movilidad, exceptuando las categorías de FEM de Familia de Equipos de Atención Primaria y FEM de Pediatría de Equipos de Atención Primaria.

**1.- Objeto:**

El presente documento establece los criterios generales que han de regular la adecuación definitiva en los servicios, centros y unidades de la OSI Araba.

Con carácter general se ofertarán a adecuación aquellos puestos que resulten vacantes en los distintos servicios, unidades y centros de la OSI ARABA previos a un proceso de movilidad definitiva.

Se excluyen de la adecuación las vacantes de FEM de Familia EAP y FEM Pediatría EAP.

Los procesos de adecuación interna, salvo en los supuestos en que resulte preciso para el cumplimiento del plan de normalización del uso del euskera, no conllevarán el cambio de código de plaza, es decir, la persona adjudicataria accederá al puesto ofertado con su propio código. La adecuación solo supone un cambio de turno/ubicación.



José Atxotegi zk.g. / 01009 Vitoria-Gasteiz / Araba/Álava
Tfno. 945 007 000

**2.- Langileen eremua:**

Barne-egokitzapen horretarako aukera izango dute lanpostu hutsa sortzen den kategoria/lanpostu funtzional berean eta Unitate/Zerbitzu berean plazaren titular diren ARABAKO ESIko profesionalek, lanpostu hutsa betetzen ari diren ala ez kontuan hartu gabe, plaza erreserbatzea eragiten duen egoera batean daudelako.

Lanpostu berrian berehala hasiko da lanean, barne-sustapen egoeran ez bada behintzat. Kasu horretan, lanean hastea egoera hori bukatzean atzeratu ahalko du. Lanean berehala hasteko salbuespen hori behin bakarrik egin ahalko da.

Osasun-zentroak/unitateak/zerbitzuak mugikortasunean eskainitako destinoen arabera definituko dira.

Mugikortasun prozesuen, EPEaren edo lekualdatze lehiaketaren bidez destinoa lortzen duten pertsonek ezin izango dituzte eskuratu esleipen horretatik urtebete igaro arte eskaintzen diren egokitzapenak.

Halaber, egokitzapen baten esleipendunek 2 urte egin beharko dituzte esleitutako lanpostuan, beste egokitzapen bat egin ahal izateko. Muga hori ez da aplikatuko mugikortasun prozesu baten ondorioz beste destino bat eskaintzen zaienean.

**3-. Izangaien baldintzak:**

Izangaiek nahitaez honako baldintzak hauek bete beharko dituzte:

1. Lanpostua jabetzan izatea Arabako ESIan

**2.-Ámbito personal:**

A esta adecuación interna podrán optar los/las profesionales de OSI ARABA titulares de plaza en la misma categoría/puesto funcional y Unidad/Servicio en la que se genere la vacante, con independencia de si la están ocupando o no por encontrarse en una situación que genere reserva de plaza.

La incorporación al nuevo puesto será inmediata, exceptuando el supuesto de encontrarse en situación de promoción interna, en cuyo caso podrá posponer la incorporación a la finalización de dicha situación. Esta salvedad a la incorporación inmediata podrá realizarse una única vez.

Los centros de salud/unidades/servicios vendrán definidos por los destinos ofertados en movilidad.

Las personas que obtengan adjudicación de destino a través de los procesos de movilidad, OPE o Concurso de Traslados no podrán optar a las adecuaciones que se oferten hasta pasado un año desde dicha adjudicación.

Asimismo, los/las adjudicatarios/as de una adecuación deberán permanecer 2 años en el puesto asignado antes de poder acceder a otra adecuación. Este límite de permanencia no será de aplicación en el caso de les sea ofertado un nuevo destino resultado de un proceso de movilidad.

**3.- Requisitos:**

Las personas aspirantes deberán cumplir obligatoriamente los siguientes requisitos:

1. Tener plaza en propiedad en OSI Araba

2. Egokitu beharreko lanpostu hutsa sortzen den osasun-zentro/unitate/zerbitzu berari atxikita egon behar du titular den plazak.
3. Lanpostu funtzional berekoa izatea.

2. La plaza de la que se es titular ha de estar adscrita al mismo centro de salud/unidad/servicio donde se genere la vacante a adecuar.
3. Pertenecer al mismo puesto funcional.

**4.- Eskaera:**

Horretarako sortuko den formularioaren bidez egingo da eskaera, eta Arabako ESIaren intranetean egongo da.

Profesionalak antolakuntza-unitatea eta titular gisa duen plazaren txanda adierazi beharko ditu eskabidean.

Egokitze prozesua irekia eta iraunkorra izango da.

Urteko deialdiaren epetik kanpo jasotzen diren eskaerak eskaera dataren arabera ordenatuko dira, zerrendak eguneratu arte. Zerrenda hori behin betiko zerrenda agortutakoan erabiliko da, beharrezkoa bada.

Egun bereko eskabide bat baino gehiago izanez gero, denboran lehenago jaiotakoaren alde aginduko dira.

**4- Solicitud:**

La solicitud se realizará mediante formulario que se creará a tal efecto y del que se dispondrá en la Intranet de OSI Araba.

El/La profesional deberá indicar en su solicitud la unidad organizativa y el turno de la plaza que ostenta como titular.

El proceso de adecuación será abierto y permanente.

Las solicitudes que se reciban fuera del plazo de la convocatoria anual se ordenarán por fecha de solicitud hasta la siguiente actualización de listas. Esta lista se utilizará si fuera necesario una vez agotada la lista definitiva.

De haber más de una solicitud de la misma fecha se ordenarán a favor de la persona cuya fecha de nacimiento sea anterior en el tiempo.

**5.- Epea:**

Mugikortasun deialdia argitaratzearekin batera, argitara emango da egokitze eskaerak aurkezteko 10 egun baliodunekoepea irekiko dela.

**5- Plazo:**

De forma simultánea a la publicación de la convocatoria de movilidad, se hará público el anuncio de apertura de plazo de 10 días hábiles para la presentación de solicitudes de adecuación.

**6.- Prozedura:**

Egokitzapen-eskaintza Arabako ESIaren webgunean elektronikoki eta formalki aurkeztutako eskabideen artean ezarritako lehentasun-hurrenkeraren arabera egingo da.

**6- Procedimiento:**

La oferta de adecuación se realizará atendiendo al orden de prelación establecido entre las solicitudes electrónica y formalmente presentadas en la web de OSI Araba.

| | |
|---|---|
| Esleipena puntuazioaren arabera egingo da, lanbide esperientziaren baremazioaren arabera. | La adjudicación se realizará por orden de puntuación conforme a la baremación de la experiencia profesional. |
| Egindako zerbitzuen kalkulua eskaerak aurkezteko urteko azken egunean egingo da. | La fecha que determinará el cálculo de los servicios prestados será el último día de plazo anual de presentación de solicitudes. |
| Azken puntuazioan berdinketa izanez gero, izaera orokorreko Lekualdatze Lehiaketa ireki eta iraunkorrean araututako irizpide berberak aplikatuko dira. | En caso de empate en la puntuación final, serán de aplicación los mismos criterios regulados en el Concurso de Traslados abierto y permanente de carácter general. |
| Euskara Planean 1. lehentasun espezifikoa duten unitateetara atxikitzeko, beharrezkoa izango da dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea. | Para la adscripción a unidades definidas como de Prioridad especifica 1 por el Plan de Euskera será preciso tener acreditado el correspondiente Perfil lingüístico. |
| Langileen Zuzendaritzak eskainiko ditu izangaiak aukeran dituen egokitzapenak, profesionalak adierazitako egoerarekin bat ez datozenak. | La Dirección de Personas ofertará las adecuaciones a las que puede optar la persona candidata y que presenten diferencias con la situación indicada por el/la profesional. |
| Egokitzapen hori onartu edo ukatzeko eskaintzari berehala erantzungo zaio. | La respuesta a la oferta sobre la aceptación o renuncia a dicha adecuación será inmediata. |
| Ofizioz baztertuko dira zerrendetatik, eta ez zaie egokitzapenik eskainiko behin betiko mugikortasunagatik beste destinoren bat esleitu zaien hautagaiak. | Serán excluidos de oficio de los listados y no se les ofertará una adecuación aquellas personas candidatas a las que se les hubiera adjudicado otro destino por movilidad definitiva |
| Eskaintza ukatuz gero, ez da penalizaziorik izango. | No habrá penalización en caso de rechazo de la oferta. |
| Egokitzapena egin ondoren, lanpostu hutsa behin betiko barne mugikortasunean eskainiko zaie dagokien eskatzaileei, dagokien zerrendako lehentasun hurrenkeraren arabera. | Una vez realizada la adecuación, el puesto vacante resultante se ofertará en movilidad interna definitiva a las personas solicitantes que correspondan por el orden de prelación de la lista correspondiente. |
| Era berean, gertatuko den lehen behin betiko mugikortasunaren erresultaren aldez aurreko egokitzapena egingo da, eta, gero, ondoriozko mugikortasun prozesuarekin jarraituko da. | Igualmente procederá adecuación previa de la resulta de la primera movilidad definitiva que se produzca, continuando a posteriori con el proceso de movilidad sobrevenido. |



José Atxotegi zk.g. / 01009 Vitoria-Gasteiz / Araba/Álava
Tfno. 945 007 000

**7- Behin-behineko zerrendak:**

Baremazioa egin ondoren, ARABAKO ESIaren intranetean argitaratuko dira behin-behineko zerrendak, esperientzia profesionalaren baremazioaren arabera. Parte hartzen dutenek hamar egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko, ARABAKO ESIko Intraneten argitaratu eta biharamunetik hasita.

**7- Listas provisionales:**

Una vez realizada la baremación se publicarán en la Intranet de OSI ARABA los listados provisionales conforme a la baremación de la experiencia profesional. Las personas que participen podrán formular reclamaciones en el plazo de diez días hábiles, contados a partir del día siguiente al de su publicación en la Intranet de OSI ARABA.

**8.- Behin betiko zerrendak:**

Aurka egiteko erreklamazioak edo alegazioak garaiz eta behar bezala ebatzi ondoren, behin betiko zerrendak argitaratuz baztertuko edo onartuko dira. Zerrenda horiek ARABAKO ESIaren intranetean argitaratuko dira.

Behin betiko zerrendak argitaratu ondoren, argitaratu eta biharamunean hartuko dute indarra, eta indarrik gabe gelditukо dira aurreko deialdiko zerrendak. Zerrendak hurrengo zerrendak egin eta argitaratu arte egongo dira indarrean.

**8- Listas definitivas:**

Una vez resueltas las reclamaciones de impugnación o alegaciones formuladas en tiempo y forma, serán rechazadas o estimadas por medio de la publicación de los listados definitivos que será publicada en la Intranet de OSI ARABA.

Una vez publicadas las listas definitivas, éstas entrarán en vigor al día siguiente de su publicación, quedando sin efecto las listas correspondientes a la convocatoria anterior. Las mismas estarán vigentes hasta la elaboración y publicación de las siguientes listas.

**9- Xedapen indargabetzaile**

Behin betiko zerrendak indarrean jartzen direnetik, egokitzapenak hemen xedatutakoaren arabera arautuko dira, eta 1471/2018 ebazpenaren bidez ezarritako aurreko erregulazioak balioa galduko du.

**9.- Disposición derogatoria**

Desde la entrada en vigor de los listados definitivos las adecuaciones se regularán por lo aquí dispuesto perdiendo validez la anterior regulación establecida mediante la resolución 1471/2018.

**10.-Azken Xedapena**

Ebazpen honetan zehazki zehazten ez diren egoerak Arabako ESIaren Urteko Mugikortasun Deialdiaren Oinarrien arabera ebatziko dira.

**10.-Disposición final:**

Aquellas situaciones no concretadas específicamente en esta resolución se resolverán de acuerdo a las Bases de la Convocatoria Anual de Movilidad de OSI Araba.



José Atxotegi zk.g. / 01009 Vitoria-Gasteiz / Araba/Álava
Tfno. 945 007 000

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, Osakidetzako Estatutu Sozialen 5.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin lotuta.

Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5.2 de los Estatutos Sociales de Osakidetza en relación con los artículos 121 y 122 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 22an

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de abril de 2021

**ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEA**
Araba Erakunde Sanitario integratuko Langileen Zuzendaria
(233/2015 Ebazpena, martxoaren 3koa)

**DIRECTOR GERENTE DE LA ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA**
Director de Personal del Organización Sanitaria Integrada Araba
(Resolución 233/2015, de 3 de marzo)

Osakidetza
ARABA ESI
OSI ARABA
LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS

**Iz./Fdo.: FCO. JAVIER PEDROSA RODERO**